

**2016-2017KO EPE-REN
DEIALDI ESPEZIFIKOETAN
ETA BIOLOGOEN
KATEGORIAN TXERTATU
BEHARREKO EPE-REN
EREDUA HOBETZEKO
NEURRIAK**

AURKEZPENA

Osakidetzak datozen urteotan sortu zenetik plantillan berritzeko bizi izan duen prozesu garrantzitsuenari ekingo dio. Osakidetzako plantillan profesional berriak sartzeko erabiliko den EPEk eredu berri bati erantzun beharraren inguruan adostasun handia dago, etorkizuneko EPEek osasun sistema publikora sartzeko berdintasun, merezimendu eta gaitasuneko printzipioak betetzen direla guztiz bermatze aldera eta, aldi berean, horien garapen zuzena ahalbidetzeko, prozesu horien eraginkortasun eta efizientiaren ikuspegitik.

Horrekin lotuta, hainbat instituziok (Arartekok), erakundek (HAEEK), profesionalek (Jiménez Asensio katedradunak), sindikatuk, elkargo profesionalek eta alderdi politikok ekarpenak egiten ari dira eredu hori definitzeko.

Agente ezberdinek bat datoz eredu hori modu mailakatuan aplikatu behar dela pentsatzean.

Horrela izanik, bat datoz indarrean dagoen EPEren kasuan, 2016-2017ri dagokion horren kasuan, fakultatibo espezialista medikoen ezagutza espezifikoen lanpostuen deialdia eta biologo fakultatibo espezialisten deialdia egiteke daudela. Zehazki, 26 lanpostuetako deialdiak honela banatuko lirateke: fakultatibo espezialista mediko-teknikoko 7 espezialitatearen ezagutza espezifikoetako 12 deialdi eta biologo fakultatibo teknikoko 4 lanposturen deialdi bat, koadroan jasotzen den bezala:

LANPOSTU FUNTZIONALA	PROFIL EZPEZIFIKOAK	LANPOSTUAK
KARDIOLOGIAKO FEM	Kardiologia Hemodinamikoa	2
KIRURGIA OROKORREKO ETA DIGESTIO-APARATUKO FEM	Gibelesko eta behazuneko kirurgia Minbizia	1
KIRURGIA OROKORREKO ETA DIGESTIO-APARATUKO FEM	Gibelesko eta behazuneko kirurgia Transplanteak	1
BARNE-MEDIKUNTZAKO FEM	Gaixotasun autoimmuneak	1
OBSTETRIZIAKO ETA GINEKOLOGIAKO FEM	Laguntza bidezko ugalketa	2
OSPITALE-PEDIATRIAKO FEM	HAURREN KARDIOLOGIA	1
OSPITALE-PEDIATRIAKO FEM	Neonatologia	2
OSPITALE-PEDIATRIAKO FEM	Intentsiboetako pediatra	4
OSPITALE-PEDIATRIAKO FEM	Pediatriako larrialdiak	3
ERRADIODIAGNOSTIKOKO FEM	Neuroerradiologia Interbentzionista	2
ERRADIODIAGNOSTIKOKO FEM	Erradiologia interbentzionista	1
ANALISI KLINIKOETAKO FEMT	Zitogenetika eta Genetika Molekularra	2

LANPOSTU FUNTZIONALA	LANPOSTUAK
Biologo FT	4

Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiak eta baita 2016-2017ko EPEren akordioa sinatu zuten Sindikatuek (SATSE, Euskadiko Sendagileen Sindikatua eta UGTK) ere, horren Jarraipen Batzordea integratzen dutenek, uste dute deialdi hau aukera ona dela horren garapen objektiboena eta eraginkorra bermatzeko agente ezberdinek proposatutako neurrietako batzuk txertatzeko.

Modu horretan, eta 2016-2017ko EPEren oinarri orokorrak errespetatuz (103/2018 Ebazpena, otsailaren 5koa, Osakidetzako zuzendari nagusiarena), 2018ko urtarrilaren 16ko aurreakordioan eta baita 2016-2017ko Enplegu Publikoaren Eskaintzari dagozkion Fakultatibo Mediko-Teknikoen deialdietan sartutako ezagutza espezifikodun lanpostuak zehazten dituen Osakidetzako zuzendari nagusiaren maiatzaren 15eko 545/2018 Ebazpenean ere jaso ziren bezala eta, etorkizunean, goiko koadroan aipatutako lanpostuen deialdiaren oinarri espezifikoak onartze aldera, 2016-2017ko EPEren Jarraipen Batzordean hainbat neurri identifikatu dira, horiek proben garapenean berdintasun, merezimendu eta gaitasuneko printzipioen betetzea hobetu ahal dutelako.

NEURRIEN IZAERA ETA ESPARRUA

Guztira 12 neurri dira, funtsean alderdi hauekin lotutakoak: epaimahaikideen hautaketa, azterketen edukia, zuzenketaren irizpideak eta inork egin baino lehen horien behin betiko edukia ez ezagutzeko bermeak.

Neurri horiek ez dute EPE berrien azken eredia baldintzatzen; izan ere, horiek dagokien foroetan eta organoetan adostu beharko baitira. Horregatik, aurretik aipatutako progresibitate-printzipioaren arabera, deialdi pilotu bat formalizatu nahi dute eta bertan aipatutako instituzioetatik eta erakundeetatik proposatutako neurri garrantzitsuenetariko batzuen eraginkortasun praktikoa egiaztatu.

2016-2017KO EPE-REN PROBA ESPEZIFIKOEN DEIALDIAN TXERTATU BEHARREKO NEURRIAK.

A) Epaimahaiekin eta haien osaerarekin lotutako neurriak

1.	<i>Epaimahaikideak zozketa bidez hautatuko dira. Hautagaiak aurretik definituko dira irizpide objektiboen bidez.</i>	ESPARRUA
		Epaimahaiaik
Helburua	Erabateko inpartzialtasuna bermatzea Epaimahaikideak aukeratzean, eta baita espezialitate-printzipioa ere Epaimahaia osatzean.	
Xehetasuna	<p>Irizpide objektiboen helburua espezialitate-printzipioa betetzea da; hots, Epaimahaikideak zozketa bidez aukeratzea deitutako lanpostuetako edo horien kategorietako espezialitatearen eta arlo espezifikoaren profesionalen artean.</p> <p>Epaimahaietako idazkariak ere zozketa bidez hautatuko dira, eginkizun juridikoak dituzten Osakidetzako langileen (A2) artean.</p> <p>Epaimahaikideen azken hautaketa egiteko zozketa ekitaldi publikoan egingo da eta une hori deialdi espezifikoaren oinarrietan zehaztuko da.</p> <p>Zozketa bidez hautatutako Epaimahaikideen artean, identifikatuko dira, zozketa bidez ere, zein izango diren epaimahaikide titularrak, epaimahaikide ordezkioak eta Epaimahaiko presidentea eta horren ordezkioa.</p> <p>Eragozten duten arrazoitutako arrazoi objektiboak egon ezean, gizonen eta emakumeen arteko ordezkaritza orekatua bermatuko da.</p>	

2.	<i>Espezialitate-irizpideak eragozten badu zozketa ausaz egin ahal izatea, profesionalen multzoa Osakidetzako lanpostu funtzionala dutenekin handituko da eta, beharrezkoa balitz, Osasun Sistema Nazionaleko arlo espezifikoa horren profesionalekin.</i>	ESPARRUA Epaimahaiak
Helburua	Zozketaren ausazko izaera bermatzea, deitutako espezialitateak edo arlo espezifikokoak profesional oso gutxi dituenen EAEn bertan.	
Xehetasuna	<p>Neurri horrek Epaimahaiakideak langile funtzionario, estatutupeko edo lan-kontratudun finkoen artean hautatu behar izatearen egoerari erantzuten dio.</p> <p>Hainbat espezialitate medikotan, lege-eskakizun horri, deitutako lanpostuaren espezialitatearen arlokoa izatea eskatzen bada, gerta daiteke, adibidez genetikan, Euskadin bi eskakizunak betetzen dituzten profesionalen kopurua oso txikia izatea edo, are gehiago, Epaimahaiakideen gutxieneko kopurura ez iristea.</p> <p>Horren ondorioz, neurri honek zozketaren oinarri-multzoa espezialitatearen lanpostu funtzionala duten Osakidetzako profesionalekin eta, beharrezkoa balitz, Osasun Sistema Nazionalaren arlo espezifikoko profesionalekin handitzea proposatzen du. Era berean, bermatuko da epaimahaiakideek eta aholkulariek azterketa egiteko prozesuan parte hartu ez izana.</p> <p>Zozketa egiteko profesionalen gutxieneko oinarria 28 profesionalekoa dela irizten dugu (Epaimahai bakoitzeko zazpi epaimahaiakideak eta horien ordezkokoak izendatzeko), nahiz eta zozketarako oinarri horrek profesional gehiago hartu ditzake, eskakizunak betetzen dituen langile finkoen arabera.</p>	

3.	<i>Epaimahaiakideek, konpromiso etiko bat sinatuko dutenek, errespetatu beharreko betekizun etikoak eta, hala badagokio, jokabide-arauak dokumentu batean esplizituki jasoko dira.</i>	ESPARRUA Epaimahaiak
Helburua	Hautagaiak eta Epaimahaiakideek errespetatu behar dituzten betekizun etikoak eta jokabide-arauak esplizituki ezagutzen dituztela bermatzea.	
Xehetasuna	HAEEK idatzitako ditu betekizun eta jokabide-arau horiek, horien izaera beste Euskal Administrazio Publikoetako hautaketa-prozesuetan aplikatzen denaren baliokidea delako eta izan behar duelako.	

4.	<i>Deialdiak zehaztuko du Epaimahaikideek epaimahakide gisa bete beharreko norberaren atazen, jokabide-arauen eta betekizun etikoen gaineko prestakuntza-jardunaldia jasoko dutela.</i>	ESPARRUA
		Epaimahaiak
Helburua	Epaimahaikideek dituzten atazak gehiago eta hobeto ulertzen dituztela bermatzea, eta epaimahai ezberdinen funtzionamenduak jarduketa-jarraibide bateratu batzuk jarraitzea lortzea.	
Xehetasuna	<p>HAEK antolatu eta zuzenduko du prestakuntza-saioa, horien izaera beste Euskal Administrazio Publikoetako hautaketa-prozesuetan aplikatzen denaren baliokidea delako eta izan behar duelako.</p> <p>Prestakuntza-saioa, Epaimahaiak osatu ondoren, epaimahakide guztiei elkarrekin emango zaie, ahal den neurrian.</p>	

5.	<i>Deialdiak berariaz jasoko du Epaimahakide izatea onartzeko betekizuna, salbu eta behar bezala egiaztatutako abstentziorako eta/edo errekusatzeko arrazoirik badago.</i>	ESPARRUA
		Epimahaia
Helburua	Izendapena onartzeko edo ez onartzeko askatasunak Epimahaiei osatzea ez eragozte.	
Xehetasuna	<p>Administrazioaren beste sektoreetan aplikatzen ohi den neurri bat da.</p> <p>Errekusatzeko eta abstentziorako arrazoiak tasatuta daude arauan (Sektore Publikoko Erregimen Juridikoko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua eta hurrengoak) eta horrek aukera ematen du esparru objektibo bat izateko neurri hori betetze aldera.</p>	

B) Azterketan egitearekin lotutako neurriak

6.	<i>Probak egiteko eta zehazteko esparru metodologiko espezifiko bat izatea.</i>	ESPARRUA
		Azterketak
Helburua	EPE bateko hautaketa-proben formatuak eta zuzenketa-sistemek Epaimahai guztietan irizpide homogeen batzuei erantzuten dietela bermatzea, ezberdintasun esanguratsuak ez gertatzeko, horiek hautagaiei eskatutako eskakizun-mailan justifikatu gabeko ezberdintasunak ez sortzeko Epaimahai ezberdinetan.	
Xehetasuna	<p>Neurri hori hautaketa-prozesuetan aplikatu ohi da, EPE bereko hautaketa-prozesu ezberdinek partekatutako koherentzia bat izan dezaten proben inguruan, horietako arduraduna den Epaimahaia edozein dela.</p> <p>HAEEEK, prozesu honetan, proba guztien diseinuaren izaera homologatua zainduko du, deialdi honetan dauden kategorien azterketen ereduaren arteko desberdintasun handiak saihestuz.</p>	

7.	<i>Proba teorikoa egiteko EAetik kanpoko espezialistengana joko dugu eta, deialdi hauetan, aldi baterako izaera duten hauetan, baita proba praktikoak egiteko ere.</i>	ESPARRUA
		Azterketak
Helburua	2016-2017ko EPEn azterketak egitearekin sortutako problematika kontuan izanik, eta eredu berri bat adosten den bitartean, azterketak Autonomia Erkidegotik kanpoko pertsona aditu anonimoei egitea egokiena iruditzen zaigu.	
Xehetasuna	<p>Probak egiteaz arduratuko diren pertsona adituen anonimotasuna HAEEn bidez bermatuko da, hori izango baita adituak hautatzeaz arduratuko den eta haien nortasuna ezagutuko duen bakarra.</p> <p>Deialdi honetan sistema hori jarraituko da, ez bakarrik proba teorikorako baizik eta praktikorako ere.</p> <p>HAEEEK egingo du azterketa teorikoa eta praktikoa egingo dituzten kanpo adituen azken izendapena.</p>	

8.	<i>Oraingo honetan eta aldi baterako izaerarekin kanpo adituak egingo dituzte proba praktikoak, HAEEren zuzendaritzapean, bere jarraipenarekin eta zaintzarekin.</i>	ESPARRUA
		Azterketak
Helburua	2016-2017ko EPEn azterketak egitearekin sortutako problematika kontuan izanik, eta eredu berri bat adosten den bitartean, egokiena deritzogu zaigu HAEE proba teorikoa eta praktikoa egiteaz arduratuko diren kanpo adituak identifikatzeaz eta hautatzeaz arduratzeari.	
Xehetasuna	Kanpo adituak izendatzerakoan, HAEEk azterketa teorikoa eta praktikoa egingo dutenen izendapena egingo du.	

9.	<i>Proba egitea pertsona bakar bati ez agintzea.</i>	ESPARRUA
		Azterketak
Helburua	Inork aukerarik ez izatea egingo den probaren azken edukia ezagutzeko.	
Xehetasuna	<p>Probak pertsona batek baino gehiagok egitearekin lortzen da inork ez edukitzea azterketaren azken edukia bere osotasunean eta, gainera, ahalbidetzen du, ausazko elementu bat sartzea neurri honek aipatzen duen azken eduki horretan.</p> <p>HAEEk, trazabilitatea bermatzeko, probak egin dituztenen (horietako bakoitzak eginiko zatiaz zehaztuz) pertsonen nortasuna jasotzen duen erregistro konfidentzial bat izango du. Erregistro honetan, azterketak ikusi dituzten pertsona guztiak jasoko dira, eta prozesuan zertan hartu duten parte eta horri logistikoki nola lagundu dioten (fotokopiak egitea, azterketak garraiatzea, azterketak zaintzea eta abar). Bertan jasoko da: izena, azterketa ikusi izanaren arrazoia eta azken horren data.</p> <p>Probak zuzendu eta berehala emaitzen azterketa estatistiko eta psikometriko bat egingo da eta hori Epaimahaiari emango zaio proben emaitzarekin batera argitaratu dadin. Erabakigarria ez bada, oposizioileei egoera horren eta emaitzak argitaratu baino lehen, beharrezkoa bada, azterketa osagarriak egiteko behar den aurreikusitako epearen berri emango zaie.</p>	



10.	<i>Deialdian zehaztuko da azterketak gai-zerrendarekin eta bibliografiarekin lotuta daudela.</i>	ESPARRUA
		Azterketak
Helburua	Azterketak egiteko euskarria izango diren gaien eta ezagutzen gaineko ziurtasun handiena eskaintzea oposizioileei.	
Xehetasuna	Deialdian zehaztuko dira gai-zerrenda eta bibliografia. HAEEK, azterketak egiteko agintzen duenean, hori egiteaz arduratuko direnei euskarri izango diren gai-zerrenda eta bibliografia emango die, eta bi elementuekin lotuta egon behar direla azpimarratuko die.	

11.	<i>HAEEri probak test formatuan egiteko agintzea.</i>	ESPARRUA
		Azterketak
Helburua	HAEEK proba-mota horretan duen esperientziarekin kontatzea, zuzenketa ahalik eta gehien objektibatzea eta proba-mota horien zuzenketa-denborak arintzea.	
Xehetasuna	Hautaketa-probetan proba teorikoak eta espezifikoak konbinatzen direnean edo proba masiboak direnean, test formatua, zuzenketa-prozesua arintzeaz eta objektibatzeaz gain, oso eraginkorra da probaren garapena errazteko. Azterketa praktikoak 5 kasu praktiko izango ditu; horietako bakoitzak test motako 5 galdera + erreserbako galdera 1 izango ditu.	

12.	<i>Proba praktikoan azken zehaztapenean ausazko elementu bat sartzea.</i>	ESPARRUA Azterketak
Helburua	Hautaketa-prozesuan inplikaturikoez probaren azken edukia ezagutzen ez dutela bermatzea.	
Xehetasuna	<p>Neurri horrek suposatzen du, proba zehazteko azken unean zozketa edo sistema baliokideren baten bidez, prestatu diren kasuen artean, zehaztuko dela azkenean hautagaiek zein egingo duten.</p> <p>Aldi baterako izaerarekin, proba hauen kasu zehatzean, honela gauzatuko da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Azterketa praktikoarekin lotuta, azkenean azterketan sartuko diren 5 kasuak baino gehiago izatea eta probaren egun berean zein izango diren erabakitzeko zozketa egitea. <p>Aldi baterako izaerarekin eta bakarrik dokumentu honetan jasotako deialdietarako.</p> <p>Azterketa praktikoak HAEK eginiko 8 kasu izango ditu oinarri. Epaimahaiak, azterketaren egunean bertan, adostu ahalko du, betiere kideen gehiengoak erabakitzen badu eta behar bezala arrazoitzen badute, kasu praktikoren bat kentzea espezialitatearen gai-zerrendara egokitzen ez delako, baina kopurua ez da inoiz 6 kasutik jaitsiko. Adostasunik lortuko ez balitz, kasu guztiak mantenduko lirateke.</p>	